

Funtsezko elkarteak

Gure enpresak arrakasta handiagoa izan dezan elkarte bat egin dugu. Horrela materiala merkeago eskuratu dezakegu kostuak murriztuz. Honela, irabazi.iturri handiagoak eskuratuko ditugu. Elkarte horietako bat “ZORRI” botila enpresarekin da, elkarte hau botilak merkeago eskuratu ahal izateko da. Egin beharreko beste kontaktu bat UGGASA rekin egin behar duguna da. Elkarte honek laguntza handi bat emango digu oso kostu baxuan, hilean 30€ ordainduta lokal bat lortu dezakegu. Horrela gure enpresa bideragarria izan daitekeen edo ez egiazta dezakegu. Hau bi urtez da, eta bi urte horietan gure enpresa bideragarria den edo ez ikusiko dugu eta gero erabakiko dugu ea produktu hau saltzen jarraitzea errentagarria dugun gero inbertsioa egiteko. Bi urte horietan lokala izateaz gain ura, argindarra eta interneta ere izango genuke.



Horrez gain publizitate agentzia batekin ere kontaktatuko genuke, gure produktuaren iragarki bat egiteko. Irudi ona eman nahi dugunez, aditu baten esku utzi nahi dugu iragarkia egitea. Agentziarekin hitz egin ondoren erabaki dugu “Behobia”, “Tres playas” eta antzeko martxetan parte hartzaile bakoitzari gure botiletako bat oparitzea erabaki dugu ohiko publizitatea saihestuz bezero gehiago erakarri ditzakegu, izan ere kartelak eta irratiko iragarkiak edo telebistakoei ez diegulako kasurik egiten, beraz horiekin ere kontaktatu beharko dugu.

Webgune bat egin behar dugu, horretarako ere kontaktu bat egin behar dugu. Zorionez laguna dugu, beraz debalde egingo digu, hau da, ez zaigu ezer

kostatuko. Bertan informazioa eta erosteko aukera izango dute. Gure produktua internet bidez erosten badigute garraiatu ere egin beharko dugu, beraz horretarako ere kontaktu bat egin beharko dugu.



Gobernuarekin ere kontaktatu beharko dugu, diru-laguntzak eskatzeko beraz hori ere kontaktuen listan sartu behar dugu.



Guretzat kontaktu inportanteena, langileak dira. Kontaktu hau gure produktua kalitatezkoa izateko egin behar dugun kontaktu garrantzitsuenak; produktua kalitatezkoa izan dadin ondo eginda egon behar du, beraz hau da gure produktuaren puntu klabe bat diseinuarekin batera. Beraz, langile kualifikatuak kontratatuko ditugu, nahiz eta kostua handiagoa izan.

Egin behar dugun beste kontaktu bat, bankuren bat da, gure enpresaren irabaziak non gorde izateko. BBVA bankua da guretzat bankurik egokiena, bezero bakoitzaren beharretara egokitzen baita.



Gure produktua egiten eta saltzeko teknologia berriak beharrezkoak dira, esate baterako filtroa egiteko edo webgunea sortzeko. Horregatik inbertsio handia egin beharko dugu aspektu honetan.

UGGASAK eskeintzen digun laguntza amaitzen denean, hau da, bi urte horiek amaitzean, gure enpresa bideragarria edo ez den jakingo dugu, beraz horren arabera aurrera jarraituko dugu edo ez. Aurrera jarraitzea erabakiko bagenu, orubea bilatu beharko dugu, baita ura, argindarra eta interneta ere bai.

Ura eta argindarra ere beharko ditugu, horretarako kontaktu bat egin behar dugu. Iberdrola aukeratu dugu, enpresei azterketa bat egiten die eta horrela enpresa bakoitzari egokien datorkion potentzia eta prezioa eskainiz. Horrez gain, prezioak alderatu ostean merkeena dela ondorioztatu dugu, beraz Iberdrola izango da ura eta argindarra eskainiko dizkigun enpresa.



Interneta ere beharko dugu, horretarako ere kontaktu bat egin beharko dugu. Azterketa bat egin ondoren, Movistar da guretzat bideragarriena. Enpresa honek duen kalitate eta prezioa alderatuz gero merkea da, hau da, potentzia handia eskaintzen digu prezio merkean.



Filtroa egiteko ere materialak behar dira baina material horiek guk egingo ditugu, beraz horrez ez du kontakturik beharko.

Orubea ere beharko dugu, hau da. lantegi bat bertan filtroak egiteko. Lantegi hau guk eraiki beharko dugunez inbertsioa oso handia izango da, beraz bankuari mailegu bat eskatu beharko diogu, 1.000.000€ ingurukoa.

Gure produktua internet bidez erosi ahalko denez, garraiatu egin beharko dugu, beraz garraio enpresa batekin kontaktatu beharko dugu. Seur garraio konpaniarekin kontaktatzea erabaki dugu, prezio baxuenak ditu eta.



Amaitzeko, gure produktua Forum sport, Decathlon.. eta antzeko tokietan saldu nahi ditugunez, horiekin ere elkartu beharko gara.

DECATHLON

